

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2022 Foru Dekretua, urriaren 25ekoa. Onestea zergadunen errolda eta horren inguruko eginbeharrak arautzen dituen Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuaren aldaketa**

Foru Dekretu honen xedea da aldatzea zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautu zituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua.

Martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez onespena eman zaio zerbitzu digital jakinen gaineko zergari.

Zerga berri hori onesteko, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautu zituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuaren alderdi batzuk aldatu behar dira, errolda horretan zergadunen alta, aldaketa eta zergadun izateari uzteak jasotzeko, eta errolda horretan zergaren zergadunek izendatutako ordezkariari buruzko datuak jasotzeko, zergari buruzko betebeharrak betetze aldera, Europar Batasunean finkatu gabeko zergadunak direnean.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen honekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua eta Kontsulta Batzordearena aztertu dira, eta Batzordearen inguruko ondorioak kontuan hartu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena**

Honako aldaketa hauek egiten dira zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan:

Bat. 10. artikulua 2. apartatuari o) letra gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“o) Zerbitzu Digital Jakinen gaineko Zergaren martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 13. artikulua 1. apartatuaren e) letran aipatutako ordezkarien izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.”

Bi. 12. artikulua 3. apartatuari z) letra gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“z) Zerbitzu Digital Jakinen gaineko Zergaren martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 13. artikulua 1. apartatuaren a) letran aipatutako zerbitzu digital jakinen gaineko zergari lotuta egotea dakarten jardueren hasiera jakinaraztea.”

Azken xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**